

## ELURZULOAK

Hitzak berak dioen bezala, elurzuloak mendietako elurra jaso eta izotz bihurtzeko zuloak ziren. Izotz horrek erabilpen asko zituen, bai osasun arloan (kalentura jaisteko, hanturetan, erreduretan, hemorragietan...) bai sukaldaritzan ere (elikadurak mantentzeko, edariak freskatzeko, izozkiak egiteko...). Elurzuloak, lehendik erabili baziren ere, XVI. mendearen erditik aurrera ohizko bihurtu ziren herri askotan eta gehienetan, udalaren jabeago izaten ziren. XIX. mendearen azken aldera, argi indarra erabiliz izotz artifiziala egiten hasi zirenean, elurzuloen gainbehera etorri zen. Gure bainuetxeak (Zestoakoa...) izan ziren elurzuloen azken bezero handiak.

Bi motako elurzuloak daude: naturalak edo artifizialak. Lehenak, berezko mendi-zulo edo leize-zuloren batetaz baliatzen ziren elurra gordetzeko. Baina, askotan, herri handietako bezeroa bertatik urruti samar geratu ohi zen, eta izotza garraiatzeko arazoak izaten zituzten.

Bestalde, elurzulo artifizialak, naturalak baino landuagoak, Euskal Herri osoan zabaldu ziren. Iparraldean edo alde ospeletan egiten ziren, 400 eta 1.400 metro arteko mendietan. Zuloaren hormak ia beti harriz estaliak egoten

ziren eta normalean ez omen zituen behera jaisteko eskailerak izaten.

Geratu direnak aztertuz gero, elurzulo gehienak (1) borobilak dira; hiru eta hamar metro arteko diametroa dute eta hiru eta hamabi metroko sakonera (zazpi bat metro askotan). Ia denak estalpea zuten, baina gutxi dira gaur eguneraino zutik iritsi direnak. Estalki hau txabola edo kupula izaten zen, hauek lurrez edo harriz tapatuak. Dena den, ba omen ziren estalkirik gabekoak ere. Agian horietako bat izan daiteke gurean ezagutzen dugun bakarra, Ezkeltzukoa (3) [UTM (ED50): 30T 5745884787446], ez baitzaio erakinaren arrastorik ikusten. Estalki horretan lanerako tresnak gordetzen ziren: palak, sokak, eskailera, izotza mozteko zerrak, aizkorak eta laiak... Polea ere bazuten, izotza zulotik gora igotzeko.

Udazkenean, pago-orbela bildu eta estalkian gordetzen zen. Gero, neguan, elurra zuloaren ahorraino eramaten zen leretan, zestotan edo bolak eginez, maldak uzten bazuen behintzat. Orduan hasten zen elurketarien lanik neketsuena: zuloko elurra zapaltzea izotz bihurtu arteraino. Normalean 30-50 cm-ko elur geruzak egiten ziren eta garoz edo orbela osatutako beste bat tartekatzen zen beraien artean. Garo eta orbela izotza hobeto isolatzen zuten eta gainera behar zenean izotza bera ateratzea ere errazten zuen. Udan izotza herrietan saltzen zen. Gauaz ateratzen zen elurzulotik eta gauaz garraiatzen zen gurditan, garoz eta zotalez ongi estalita, ur ez zedin. Horrela eramaten zen Aralarretik Donostiara; Azpeitiko Xoxotetik (2), Zestoako Bainuetxera; Aiako Harritik Biarritzera... Ezkeltzuko izotza Donostiara eramango zuten, noski.

Gaur, elurzuloen arrasto batzuk besterik ez zaizkigu geratzen eta beraiek ongi babestea eta zaintzea da gure lana. Aipatzekoa da, hari horretan, Otxandioko udalak Astikurutzetako elurzuloa berreskuratzeko bultzatu duen lana, eredugarria gainontzekoentzat. Zizurkilen dugun Ezkeltzuko elurzuloak ere garbitzea eta txukuntzea merezi du (4).

-----  
Gehiago jakiteko:

Elurzuloak – A. Agirre Sorondo (Euskal Herria, 6. zkia, 2003ko urrikoa) // Astikurutzetako elurzuloa (DVDa – Otxandioko Udala - 2003) // Los neveros – Angel M. Calvo Barco (Eusko Ikaskuntza - <http://www.euskonews.com/0059zkb/gaia5905es.html> -)

